

Literatura ▸ LIBURUAK

Munduan zehar travelling

BENAT SARASOLA

Zure gorputza highway gisa / imajinatzen dut etengabe». Euskal literatura irakurri eta jarraitzen duen edonork (baldin eta halako izakirik existitzen bada, esan gabe doa) azkar asko asmatzen ahaliko du bi lerro horiek zeinek idatzi dituen. Izatez, idazle bati eskatu dakiokeen gauza funtsezkoenetakoa horixe baita, hain zuzen, ahots berezi bat osatzeko gai izatea; eta Itxaro Bordak ahots hori aspaldian du lortuta.

Noiztenka poema liburu honetan, gainera, uste dut oso argiro azaltzen dela bere mundu berezi hori. Liburua Bordak azken zazpi urtean idatzitako poemek osatzen dute, eta mota zein tankera askotako poemak topatzen dira bertan; hala egituren aldetik (sonetoak, bosdun zein lauko txikiak, bertso libre), nola gai aldetik. Hala ere, liburuari batasuna ematen dion ideia nagusia bidaiaren dela esango nuke. Bidaiaren metafora sarritan erabiltzen da, eta liburu-ko poema indartsuenak (*Milia Lastur on the road*, *Kreutzer Sonata*

te) bidaiaren ideiarekin lotu daitezke modu batera edo bestera. Eta bidaiarekin batera, jakina, lekuak. Irakurleak munduan zehar bidaiatzen egiteko aukera izango baitu liburuaren irakurketarekin batera: Grezia klasikotik Bamakora, Madridetik Berlinera, Bilbotik Maule- ra. Euskal Herriaz landa, baina, Alemania da liburuan pisu handiena duen herrialdea. Ez bakarrik geografikoki, sinbolikoki ere Alemaniarekin loturiko elementuak maiz erabiltzen dira (hizkuntza bera, Hannah Arendt, Auschwitz, Wim Wenders, Caspar David Friedrich...). Badirudi, adibidez, Berlinek iradokitzen duen suntsipenak poetikoki erakartzen duela Borda, baina era berean hiria askatzaile zaiola: «darabilen hizkuntza berrian, / *holderdeutsch* oraino, / ez du zorigaitzaren errateko / aditzik ezagutzen».

Eta arestian aipatu bezala, bidaiaren ideiak Bordaren idazkera edertu laburbiltzen duela iruditzen zait. Identitate finkoak baino ago nomadak (inmigrazioa, homosexualtasuna) mestizaia (hizkuntzen nahasketa), deserrotze



■ 'Noiztenka'

Egilea: Itxaro Borda.
Argitaletxea: Maiatz.
Urtea: 2007.

sentimendua, norabide eza («Iparrira erraz galtzen da Berlinen»)... Joseba Gabilondo literatur kritikariak esango lukeen moduan, Bordaren «migrantzia errotikako melankolikoa».

Honekin batera, Bordak osatzen duen Euskal Herriaren irudia ezin pertsonalagoa da. Besteak beste, periferiarekin hertsirik loturik dagoena; eta ez da harritetza, beraz, euskal munduari egini-

ko erreferentzia guztiak ez-gipuzkoarrak izatea: Bizkaiko kosta, Gasteiz, Maule, Tuter. Honen harira, plazer bat da *Milia Lastur on the road* lako poemekin topo egitea, nik dakidala, Bizkaiko kostari egin zaion kanturik ederrena. Bordaren literatura pesimistatza jo izan da maiz, eta liburu honetako poemek ere badute halako ukitu etsi bat, baina egia da orobat, idazleak berak zenbait elkarriketetan aitortu duen gisara, etsi honek utzi uzten duela itzaropenerako tarterik (horren adierazgarri *Behar duguna* poema). Berlini buruz aipatutako kontraesan hori ere testuinguru honetan uler daiteke; erabateko desolamenduaren ondoren ere zorionerako biderik uztea. Bestetik, Bordaren alderdi sarkastiko eta *basilikianoena* maite duenak ere ez zaio halakorik faltako (*Euskadi Morning kalaka*).

Segur aski alferrikako auhena da, baina triste samarra da liburu hau izaten ari den oihartzun eskasa. Betikoa, iparraldeko idazlea dela, poesiazko liburu dela, eta gainera Maiatzek argitaratua. Sarritan kexu gara literatur sistema handien eredu eta politikikien, baina inoiz oihartzuko ahal gara guk ere haien keriak kopiatzen ditugula sarritan?

>> bsarasola@berria.info



■ 'Azkuko belagaian'

Egilea: Mikel Olan. **Argitaratzailea:** Kubxa Fundazioa. **Urtea:** 2007.

«Euskal Herriko landa eremuaren gainbeheraren erretratu» egitea izan da Mikel Olanok nobela honekin izan dituen asmoetako bat. Nobela arloko Irun Hiria saria irabazi zuen iaz Olanok lan honekin. «Honi saria eman badiogu, kontatzeko erabili duen modu xumeaz gain, oso aberatsa irudituz gailurako izan da», adierazi zuen, lan irabazlea aurkeztean, Felipe Juaristi epai-mahaikideak.



■ 'Behinola', 16. zenbakia.

Argitaratzailea: Galtzagorri elkarte. **Data:** 2007ko abendua.

Aizpea Goenaga, Yolanda Arrieta eta Enkarni Genuari haur antzerkigintza egindako elkarriketa lutzak; Xabier Etxaniz Erle eta Manu Lopez Gaseniren *Begirada historiko bat haur antzerkiaren gainean* artikulua; eta Mariasun Landak idatzitako bi idazlan —horietako bat Asun Balzolari buruzkoa— jasotzen ditu, besteak beste, *Behinola* berriak.



■ 'Saindu batzuen biziaz'

Egilea: Gratien Adema 'Zaldubi'. **Apailatzailea:** Henri Duhau. **Argitaratzailea:** Euskaltzaindia. **Urtea:** 2007.

Zaldubiren heriotzaren mendeurrena izan zuen gogoan Euskaltzaindiak 2007an, eta oroitzen horren fruituen artean dago liburu hau. Zaldubik hainbat sainduri buruz emandako predikuak biltzeaz gain, Andres Urrutiak, Jean Hiriart-Urrutiak, Jean Etxeparek eta Piarres Xarritonek Zaldubiri buruz idatzitako ere eskaintzen ditu.

Nafarroako abertzaletasunaren akats-mapa bat

BIXENTE SERRANO IZKO

Egokiak, egokiak direnez, Aingeru Epaltzaren *Bezperaren bezpera* liburuaren azaleko irudiak, Xabier Idoateren *24x4 akats-mapa* renak alegia. Ohiturik gaitu Pamiela argitaletxeak sinbolismoz beteriko azalak ikustera. Akats-mapa, horixe baita gure idazlearen asmoa, aztertzeko zer egin den gaizki abertzaleen aldetik azkeneko 30 urteotan, gaurko emaitzak direnak bezalakoak izateko: Nafarroaren eta EAEren arteko distantzia gero eta luzeagoa agertzeko, Nafarroan bertan abertzale eta euskaltzaleak gero eta baztertuago gelditzea instituzioetan eta gizarteetan.

Oso ikerketa pertsonal eta subjektiboa, nerabezarotik gaur arte bere begiekin ikusi duena narrazten, berak bizi izanikoaren harira gogoeta politiko eta kulturalak egiten. Prosa eder eta adierazkorraz, euskara propio eta aberatsaz, ohi-koa duen bezala. Zentzu handiz, argitaletxe iruindarreko Saio eta Testigantza liburu sailaren plazaratu du. Hain zuzen, saiakera bat da, baina bere autobiografiaren alde abertzale eta euskaltzalearen testigantzatik abiatu da gogoetak harilkatzeko, pisu handia hartu duelarik liburuan kontu hauetarako ongi baino hobe jantziriko hiritar oinetako baten eskarmentuak.



■ 'Bezperaren bezpera'

Egilea: Aingeru Epaltza.
Argitaletxea: Pamiela.
Urtea: 2007.

«Hiritar oinetakoa»: erran nahi baita, ez gaudela bere burua zurituz behar duen politikari baten memoriaren aurrean; eta «ongi baino hobe jantzia»: hau da, beturreko apartak dituela urte hauetan guztietan gauzak sakon begiratu eta aztertzeko. Azken buruan, bizitasuna, jatorritasuna eta sinesgarritasuna ematen dizkio zimentarri autobiografiko horrek lanaren arkitektura.

Jakin, ongi daki Aingeru Epaltzak (nola ez du jakinen haren mailako nobelagile batek!) lekuko bat

ezin daitekeela narraztaile orojaki izan, eta zintzoki aitortu du liburuari buruzko elkarriketetan bere ikuspegi pertsonal eta subjektiboa. Horretan datza lan honen ekarpena, ez, ordea, azken hamarkada hauen ikerketa erabateko eta oso bat izatean. Tradizio eta heziketa familiar nola sozio-politiko baten semea da egilea, mundu horretako beturrekoak erabiltzen ditu begirada zorrozteko. Francoren gerran galtzaile atera eta tradizio politikoa nazionalista luze, eskarmentu nabarmeneko giro baten kumea dugu; merituhandiz hamarkada luzeetan beldurpeko eta isileko lanari esker iraun eta memoria propioa gorde behar izan zuen giro sozio-politiko bereziaren kumea. Horrek markatzen ditu, nire ustez, neurri handi batean Aingeru Epaltzaren izaera eta ikuspuntuak. Horrek markatzen ditu, adibidez, ez soilik bere kritika errotikoa ETArri, baita ere bere gibel-beldurrak frankismo amaieran eta ostean zabaldu ziren mobilizazio masiboen aurrean. Giro berri haren alde positiboei (azken buruan, akatsak eta guzti, abertzaletasun eta euskaltzaleatasunaren gizarteratzea ere islatzen zuten), mobilizapen haiek sortuko ote zituzten erreakzioen aurreko beldurra eta zuhurtasuna gailentzen zaizkie Epaltzaren idazlumen.

Berdintsu antzematen zaio bere gaurko esperantzak zuhur marrazten dituenen, Ibarretxeren asmoek sor ditzaketen zailtasunen aurreko bere gibel-beldurra adieraztean, adibidez.

Mereziko luke agian ikerketa historiko sozio-psikologiko bat egitea zera honetaz: frankismoaren azkenaldiko industrializazio azkarren ondorioz Nafarroan lehertu egin zuten mugimendu berriek zein ezustean harrapatu zuten frankismoaren aurretik zetorren tradizio politikoko gutxiengo garaitu hura, tradizio horren sua ez-kutuan zuhurki gorde izan zuena; eta zein mesfidati ikusi zituen gutxiengo eskarmentudun hark bertze giro sozio-politiko, kultural eta familiar batetik atera berrien (heine handi batean frankismo soziologiakoaren barnetik ihesean sorturiko mugimendu berri haien) ekimendua, eskarmentu gabeak eta ausartegiak zirelakoan.

Edonola ere, horrelako subjektibotasunaz onduri, liburu ederra, argia, sakona eta aberasgarria du honetan irakurle jakin-minak, berdin duela zein bizipenetatik edan dituen bere usteak. Horrela deritza, behintzat, mugida berri haietara frankismo soziologiko barneko girotik ihesean jauzi egin zuen irakurle honen subjektibotasunak.

>> bserrano@berria.info